

Mikel Etxezarreta Lasa

A maila • 2 aipamena

17 urte ditut eta bigarren batxillerra amaitzen ari naiz.



IKASLEAREN BIZITZA

Ikaslearen ibilbidea
zenbaitentzako trantzea
egin behar bat omen degu ta
horixe da ikastea
ez da erraza ikasgai denak
aurrera ateratzea
irakasleek nahi dutena da
eurei arreta jartzea
esten dute baina zaila da
dena gogotsu hartzea

Gorputzak dardar egin ohi digu
guri entzutean mate
irakasleak izaten ditu
ene hainbeste aldarte
goizean goiztik hasi ohi zaigu
egur batean jo ta ke
gure klasean egon ohi dira
gutxienez hamar kate
baña halere saiatzen gera
barru denak hustu arte

BERTSOAK

Ikasten ezik beste denean
jarri ohi degu arreta
gure burua egoten baita
hainbeste txoriz beteta
baina halere hartu beharko
zerbait ikasteko beta
etorkizuna lantzeko ere
lan egin behar da eta
ilusioa piztu ohi zaigu
gure barruan tarteka

Konturau gabe ia hemezortzi
goraka doa adina
ta ekainean USE-ko forgak
nolako buruko mina
han presioa sentitzen degu
ta hobe ez imagina
guk nahi duguna egin dezagun
ilusioa ta grina
baina askori gertatzen zaie
benetan nahi ta ezina

Ekain aldera horrenbeste plan
egiteko hau ta hura
negu gogorra pasa ondoren
iristen baitzaigu uda
saiatzen gera ahal den gisan
berai ematen itxura
aurten gainera parrandak ere
izango ditugu duda
oporraldiak festarik gabe
zentzurikan ba al du ba

BERTSOAK

Baña ikasketen alde politak
emanaz ezagutzera
pertsona asko ezagutzeko
ematen digu aukera
ikastolari esker ikasi
degu hain ongi euskera
momentu zailak pasatu arren
egin behar da aurrera
gauz onak hartu ta txarrak utzi
bizimodua hauxe da